

Zenbait proposamendu XVIII. Mendeko lurgin- tzaren berriztpenerako, An- tonio de San Martin y bur- goa-ren liburua: "El labra- dor vascongado o antiguo agricultor español".

JOSEBA ZUAZO OLOZAGA

Komunikazio honen edukia Antonio de San Martin y Burgoaren aipatu-
riko liburuan oinarritzen da (1). Bizkaiko Ondarru herriko presbitergoa
zen eta, baita ere, Guipuzkoan Bergarako Erret Mintegiaren zuzendari
nagusia eta fundatzailea. Beraz, garaiko erreformatzailetzat har dezakegu.

Gure idazlea lekutzeko, Carlos III.ak zeraman politika kontutan hartu
behar dugu, zeinak erdi mailako apaiz hauengan, behe mailako noblezia-
rengan eta burjesaria berriarengan bere zutabeak zituen; hau dena talde
tradizionalak ahaztutzeke. Hauek ziren lur-lantzeez eta erreformez
ardurutzen zirenak, baina teorikoki soilik. Inoiz ez zuten Eleiza eta
Nobleziaren harroin ekonomikorik kolokan ezarri (2).

Egora hau Araban, Bizkaian, Guipuzkoan eta Nafarroan ematen zen,
azken honetan ere burjeseria berri batek bai lurrak bai noblezia-agiriak
erosten zituztelarik (3). Baina egoera ekonomikoa gorritu zenean, garai
honetan mendeko azken aldiaren, jauntxo batzuek atzera egitea zuten
aurrepapelak ukatuz, eta beraiekin eleizgizon batzuek ere. Azken hauen
artean Larramendi,

Calatayud, Egaña eta gure idazlea koka daitezke. Hauek burjeseria
berriaren aurka agertu ziren oposizio ideologikoa osatuz eta nekazarien
egonezina bideratuz (4).

Erreformaren xehetasun bat populazio sakabanatuaren alde agertzen
zaigu, herri txiki hauen artean lekoa bat t'erdia bi lekoatara aldenturik.
Eta "Iruña inguruko berri txikiak era honetara eraturik daude" la aipatzen
zuelarik (5). Halako populatzea ez dagoen lekuetan hogei eta hamar hauzo-

kok osatzen zituzten herri txikiak eraikitzea proposatzen zuen (6).

Azken batetan, birpopulaketa bat izango litzateke, eta honen zioa lurgintzaren ekoizpena gehitzeko asmoz. Birpopulaketa hau gauzatzeko diruzaindegi publikoa ("fondo público") eratzea bultzatzen zuen, arazo honetan merkatalgintzan baino etekin ekonomoko ugariagoak izango zirela arbuiatzen zuelarik (7).

Dirutza honek etxeak eraikitzea, lan tresnak erostea, haziak eta animaliak erosteko gauzatuko lituzke. Hau dena soro bakoitzean etekin hobekoak izan zitezten (8).

Birpopulaketerako erakunde honen egitura "Akzionisten Junta" izango zen, eta honen helburuetariko bat baserri berri hauei beren fruituen laurden bat kobratuko zitzaiokeen; eta ildo berean, baserriak atonduz gero salgai jar zitzaieken "Akzionisten Juntak" (8).

"Junta" hauen partaideek aberatsak ("hombres ricos") izan behar zuten. Aberats hauek nekazal burjeseria berri bat osatuko ziren Euskal Herrian, eta lurgintzaren erreforma beraiei ("enplegatu", "aberatsak" orokorrean harturik) dagokie. Beraz, erreforma honetarako kapitalak lurgintzatik at etortzen ziren (9).

Herrigintzan aritzen zirenei, aberats hauei, laguntza eman behar zitzaie, proposatzen du. Hemen sailkapen bat egiten du. Orokorrean harturik, etxegintzaren trukez "Castillako Tituluak" emango dizkiete (10). Baita ere, Erregearen "merzedek" eta landugabeko eremuak (11).

Nekazal erreforma honetarako erabili nahi zuen lur-eremuak lau motatako izan daitezke:

- Edozeinen biztanlerik gabeko eremuak.
- Landugabeko eremuak.
- Kapitulu eklesiastiko en landugabeko eremu eta mendiak.
- Monasterio aberatsen biztanlerik gabeko eremuak (12).

Baina kasu guzti hauetan ez dago inolako lur-jabegoren aldaketarik, eta erabiliko lituzketeen lurak bazterretako arlotzat kontsidera ditzakegu.

Erreforma honen mamia, beraz, lurraren erabilezintasunean datzan arazoa konpondu nahirik burutzea ahalegiten zuten. Eta proposatzen duen neurririk gogorrena lur-jabe partikularrei soilik dagokie: "enfiteusisk" delako pean lurak eman ditzaleta, eta nahi duenak baserriak eraiki ditzatela (13).

San Martin-entzat, Ingalaterrako, adibidea jarraitu beharda, Bernardo Ward hain zuzen (14). Baina mendekideko idazleak aipatzen baditu: Duhamell, Ward, Abad Pluche; beste aldetik idazle klasikoak ere agertzen dira bere idazkian: Caton, Columela, Virgilio, eta abar. Tradizio jotze honek bi erataria uler daiteke: integrapen gisa, edo zaharra eta berria integratuz. Bigarren interpretapena, nekazal burjeseria berriarentzat eta aberasten ari ziren taldearentzat nekazal aurre-kapitalismotzat har

dezakegu; oster, bere tradizioetan daudenentzat edo ahultzen diren taldearentzat pribilegiek iraun dezatela, ez fisiokraziatzat kontsidera dezakegu. San Martin-en teoriak bigarren talde honetan (zerbait aldatu dena berdin iraun dezala) koka daiteke (15).

Azken batetan, San Martin-en teoria hauek "Sierra Morena" -ko kolonizatzailea zen Olavide-ren teoriarekin bat egiten dute, eta kasu batzutan errepikapena besterik ez dira (16).

Proposapen hauek, nahiz eta kutsu tradizionala eduki, baikorrak dira irtenbideak eta arazoak azalerazten dituzten heinean, eta hurrengo mendeko desamortizazioaren aitzinapen teorikoa izango dira eta.

BND

OHARRAK:

- (1) SAN MARTIN Y BURGOA, Antonio:
"El labrador vascongado, ó antiguo agricultor español".
Demostración de las mejoras de que es susceptible la **Agricultura** en las Provincias Vascongadas, y de las grandes ventajas que se podrian lograr en todo el Reyno observando las reglas de la **antigua labranza**.
- (2) ANES, Gonzalo: "El Antiguo Régimen: Los Borbones", 53. orr.; 363-364. orr.
- (3) OTAZU Y LLANA: "El igualitarismo vasco", 384-385. orr.
- (4) EXTRAMIANA, Jose: "Historia de las guerras carlistas, I" 42. orr.
- (5) SAN MARTIN Y BURGOA: *op. cit.* , 143. orr.
- (6) *Ibidem*, 141. eta 156. orr.
- (7) *Ibidem*, 153. orr.
- (8) *Ibidem*, 154. eta 155. orr.
- (9) *Ibidem*, 143. eta 272. orr.
- (10) *Ibidem*, 143. orr.
- (11) *Ibidem*, 156. orr.
- (12) *Ibidem*, 144. eta s54. orr.
- (13) *Ibidem*, 154. orr., 1. oh.
- (14) *Ibidem*, 130. 131. orr.
- (15) DOMINGUEZ ORTIZ, A.: "Sociedad y Estado en el siglo XVIII español", 410-411. orr.
HERR, R.: "España y la revolución del siglo XVIII", 128. orr. .
- (16) DOMINGUEZ ORTIZ: *op. cit.*, 410. orr.
"bosqueja un proyecto de división de tierras en pequeñas suertes, en cotos acasarados con población dispersa, con mejor instrumental, con prados artificiales y supresión de la ganadería trashumante que permitiría duplicar o triplicar la población de España".